**Saila: EKONOMI SUSTAPEN ETA ENPLEGU**

**Espediente zkia.: 17-844**

| | |
|---|---|
| **ZORNOTZAN JAN ALAI**<br>AMOREBIETA-ETXANOKO PINTXO LEHIAKETAREN OINARRIAK | **ZORNOTZAN JAN ALAI**<br>BASES CONCURSO DE PINTXOS DE AMOREBIETA-ETXANO |
| **1- NORK ANTOLATZEN DUEN** | **1- CONVOCA Y ORGANIZA** |
| Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatzen du, Zornotzako ostalaritzari bultzada bat emateko. | El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, con el objetivo de impulsar y dinamizar la hostelería de Zornotza. |
| **2- PARTE-HARTZAILEAK** | **2- PARTICIPANTES** |
| Lehiaketan Amorebieta-Etxanoko edozein **ostalaritzako establezimenduak** izena eman ahal izango du, berdin delarik ze sailkapen duen (taberna, kafetegi, jatetxe, hotel…), betiere horretarako ezarritako epe barruan izena ematen badute eta oinarri hauek onartzen badituzte. | Podrá inscribirse en el concurso, cualquier local o **establecimiento hostelero** de Amorebieta-Etxano, independientemente de su calificación y/o categoría (taberna, bar, cafetería, restaurante, hotel…) siempre que se inscriban a tal fin dentro del plazo establecido y acepten estas bases. |
| **3- LEHIAKETAREN DATA** | **3- FECHA DEL CONCURSO** |
| Lehiaketa urtean behin gauzatuko da asteburu baten (asteazken arratsaldetik igande eguerdira bitartean). Deialdi bakoitzean zein asteburutan eta zein ordutegitan izango den esango da. | El concurso se realizará durante un fin de semana al año (entendiéndose la duración de éste desde el miércoles por la tarde hasta el domingo al mediodía). Cada año se decidirá qué fin de semana se llevará a cabo y el horario de cada uno de los días. |
| **4- SARIAK** | **4- PREMIOS** |
| Pintxo berritzailerik onena 1000€ garbi (EPAIMAHAI TEKNIKOA)<br>Pintxo herrikoirik onena 1000€ garbi (HERRI EPAIMAHAIA)<br>Zerbitzaririk profesionalena aukeratzea.<br>Bezeroen botoen artean 500€ garbi zozketatuko dira.<br>Pintxoen TOP TEN zerrenda. | Mejor pintxo innovador 1000€ netos (JURADO TÉCNICO)<br>Mejor pintxo popular 1000€ netos (JURADO POPULAR)<br>Elección camarero más profesional<br>Sorteo 500€ netos entre los votos de los clientes<br>Lista TOP TEN Pintxos |

| | |
|---|---|
| **5- PINTXOAK** | **5- PINTXOS** |
| Lokal bakoitzak pintxo bakarra aurkez dezake.<br>Lehiaketara aurkeztuko diren pintxoak jendearen eskura egon beharko dira lehiaketa egunetan.<br>Pintxo guztiak behar bezala identifikatuta egon beharko dira, lehiaketaren etiketa eta logoarekin. Antolatzaileek emango dizkiete parte-hartzaileei bozkatzeko txartelak, hautestontziak eta gainontzeko publizitate-materiala.<br>Ostalariek, ustez lehiaketaren ondorioz pintxo eskaria handituko denez, pintxo kopuru nahikoa izan beharko dute eskari horri aurre egiteko. | Cada local puede presentar un único pintxo.<br>Los pintxos presentados a concurso deberán ser expedidos y estar a disposición del público durante los días que dura el concurso.<br>Todos los pintxos deberán estar debidamente identificados con la etiqueta-logo del concurso. La organización del concurso facilitará a los participantes de forma gratuita todo el material publicitario, las tarjetas para los votos y las urnas.<br>Los hosteleros deberán comprometerse a tener un número suficiente de pintxos como para atender la mayor demanda que genera el concurso. |
| PREZIOA: Pintxo guztiek salmenta prezio bakarra izango dute; prezioa antolatzaileen eta ostalarien artean adostuko da urtero. Ostalari bakoitzak bere kontura erabakiko du zein izango den bere pintxo-pote eskaintza. | PRECIO: Todos los pintxos tendrán un precio único de venta, que se decidirá conjuntamente entre la organización y los hosteleros cada año. Cada hostelero individualmente decidirá la promoción de pintxo-pote a ofertar. |
| **6- IZENA EMATEA** | **6- INSCRIPCIÓN** |
| Lehiaketaren oinarriak Ametxeko eta Udaleko web orrian, (www.ametx.eus; www.amorebieta-etxano.eus) eskuratu ahal izango dira, baita Zelaietako harreran ere.<br>Lehiaketaren deialdiarekin datorren **inskripzio orria betetzea eta sinatzea beharrezkoa izango da eta Zelaietako harreran aurkeztu beharko da**. Izena emateko epea urtero ezarriko da lehiaketaren dataren arabera. | Las bases del concurso, se podrán descargar en la web de Ametx o del Ayuntamiento, (www.ametx.eus; www.amorebieta-etxano.eus) o se podrán recoger en recepción de Zelaieta.<br>**Se deberá cumplimentar y entregar en recepción del Zelaieta la hoja de inscripción** que se entregará junto con la convocatoria del concurso. El plazo de inscripción se establecerá anualmente en concordancia con la fecha de celebración del concurso. |
| **7- EPAIMAHAIA** | **7- JURADO** |
| EPAIMAHAI TEKNIKOA: Epaimahaia gastronomia arloan adituak diren | JURADO TÉCNICO: El Jurado estará compuesto de varias personas (en función |

| | |
|---|---|
| pertsonek osatuko dute (lehiaketan izena ematen duten ostalari kopuruaren araberakoa izango da epaimahaikide-kopurua), lehiaketaren amaieran jakinaraziko da nortzuk izan diren. | de la cantidad de establecimientos hosteleros que se apunten al concurso), de reconocido prestigio dentro del ámbito de la gastronomía y cuya identidad será desvelada al final del certamen. |
| Lehiaketak irauten duen lau egunetariko edozeinetan, epaimahaikideak ostalaritza establezimenduetara joango dira era anonimoan eta pintxoak probatu eta puntuak emango dizkiete. Epaimahaikideak, taldean edota banaka, hainbatetan eta egun desberdinetan, pintxorik berritzaileena saria eskuratu dezaketen pintxoak probatzera joango dira sekretuan, pintxoaren prestakuntza eta kalitatea aldatzen ez dela ikusteko. | En cualquier momento durante los 4 días que dure el concurso, los miembros de forma anónima se pasarán por los establecimientos hosteleros, probarán y puntuarán los pintxos. El jurado acudirá de forma secreta, en grupo o de forma individual, a probar varias veces y en días diferentes los pintxos que opten al premio a la innovación, con el fin de comprobar que la elaboración y la calidad del pintxo no varía. |
| Epaimahaiak kontuan hartuko du pintxoa lehiaketako egun guztietan berdin prestatuta egotea eta ostalaritza establezimenduaren ezaugarriak ere kontuan izango ditu: handia edo txikia den, jatetxea den, taberna, pintxoa ateratzeko zenbat denbora behar duten, etab. | El jurado tendrá en consideración que el pintxo esté elaborado de igual manera todos los días del concurso, tendrá en cuenta las características del establecimiento hostelero; si es grande, pequeño, si es restaurante, bar, el tiempo que se tarda en sacar el pintxo, etc.... |
| Epaimahaiaren erabakia arrazoitua izango da eta apelaezina. Irizpide teknikoen arabera hartutako erabakia sari banaketan jakinaraziko zaie irabazi duten establezimenduei eta argitaratu egingo da. | La decisión del Jurado será motivada e inapelable. El fallo de la valoración técnica se comunicará a los establecimientos ganadores durante la entrega de premios y será publicado. |
| Epaimahaikideek dieta jasoko dute. Ordainsari horren zenbatekoa epaimahaikide eta parte hartzaile kopuruaren araberakoa izango da. | Se establecerá una dieta para el jurado en función del número de personas que lo compongan y del número de pintxos a concurso. |
| HERRI EPAIMAHAIA: Txapelketan parte hartuko duten establezimenduetan, parte hartzen duten tabernen izena eta lehiaketara aurkezten duten pintxoa dituzten txartelak emango dira. Bezeroek lehiaketan izena emanda duten establezimenduetako pintxo kopuru jakin bat probatzea beharrezkoa izango da ostalariak txartelean zigilua jartzeko eta horrela, 500€-ko zozketan parte hartu ahal izateko. | JURADO POPULAR: En los establecimientos que participen en el certamen, se entregarán tarjetas con los nombres de los bares participantes y el pintxo presentado a concurso. Será necesario que los clientes prueben un número determinado de los pintxos apuntados en el concurso, para que el hostelero/a pueda sellarles la tarjeta y optar así al sorteo de 500 euros. |
| Parte-hartzearen araberakoa izango da hori. Hau da, parte-hartzea handia izanez | Todo dependerá del nivel de participación. En el caso de que la participación sea |

| | |
|---|---|
| gero, eta hori uste da, herria zonaldeetan banatuko da. Bakoitzak kolore bat izango du. Zonalde bakoitzean lehiaketan parte hartzen duten hainbat taberna egon daitezke, eta eskatuko dena da gure txartelean zonalde bakoitzeko zigilu kopuru zehatz bat izatea. Guztira, pintxo kopuru jakin bat jan beharko da, baina nahitaezkoa izango da herriko zonalde guztietakoak izatea. Txartel bakoitzean hiru pintxorik onenak apuntatuko dituzte zozketan parte hartu nahi duten bezeroek, gehien gustatu zaienetik hasita, pintxoen TOP TENa egiteko. Profesionalen iruditu zaien zerbitzariaren izena ere ezarriko dute. Datu pertsonalak eta telefono zenbakia jarriko dituzte txartelean eta osatuta daukatenean, lehiaketan parte hartzen duten establezimenduetako edozeinetan utziko dute botoak zenbatu eta 500€-ko saria irabazteko aukera izan ahal izateko. | elevada, como así se espera, se dividirá el pueblo en zonas por colores. En cada zona puede haber varios bares que participen en el concurso, pero sólo serían necesarios un número determinado de sellos de cada zona en nuestra tarjeta. Habrá un total de pintxos a degustar, pero es obligatorio completar todas las zonas del pueblo. En cada tarjeta se apuntarán los tres mejores pintxos por orden de preferencia, para realizar el TOP TEN de pintxos y el nombre del camarero que se considere más profesional. Tras añadir los datos personales y número de teléfono, y una vez la tarjeta esté completa, se entregará en cualquiera de los establecimiento que concursen, para la contabilización de los votos y su inclusión en el sorteo de 500€. |
| BALORAZIOAK: Pintxoei puntuak ematerakoan kontuan izango diren irizpideak jakinaraziko zaie parte-hartzaileei. Epaimahaiak guztira 20 puntu eman ahal izango ditu, ondoko irizpideak kontuan izanda:<br>Pintxoaren aurkezpena.<br>Lehengaien kalitatea eta oreka.<br>Zaporea bere osotasunean eta asebetetzea.<br>Originaltasuna. | VALORACIONES: Se darán a conocer a los participantes los criterios determinantes para considerar ganadores los pintxos. El Jurado valorará sobre un total de 20 puntos, con los siguientes criterios:<br>Presentación del pintxo.<br>Calidad y equilibrio de la materia prima.<br>Sabor global y satisfacción.<br>La originalidad. |
| **8- SARI BANAKETA** | **8- ENTREGA DE PREMIOS** |
| Sari banaketa Zelaietan izango da eta eguna eta gainerako zehaztapenak jakinaraziko dira.<br>**Sari banaketara joatea nahitaezkoa da (pintxo berritzailerik onena, pintxo herrikoirik onena eta zerbitzari edo profesionalik onena). Bertaratu ezean, saria puntuazio hurrenkeran hurrengo dagoenari emango zaio.** | Se anunciará la fecha y pormenores de la entrega de premios, que será en Zelaieta.<br><br>**Es obligatoria la asistencia en la entrega de premios a la innovación, popular y mejor camarero/profesional. Si no se acude, los premios se darán al segundo por puntuación**. |

| 9- EZ BETETZEAK | 9- INCUMPLIMIENTOS |
| --- | --- |
| Lehiaketaren oinarrietako baten bat ez betetzeak ostalaritza establezimendua lehiaketatik kanpo uztea ekarriko du. Antolatzaileek berebiziko garrantzia emango diote lehiaketak irauten duen egunetan eta ezarritako ordutegian lehiaketan parte hartzen duten pintxoak jendearen eskura izateari. Establezimendu bat nahita itxita badago, pintxorik gabe gelditu eta berehala berriak prestatzen ez baditu, edota bezeroei arrazoitu gabeko zioengatik pintxorik ez dagoela esaten bazaie, betiere antolatzaileei horrelakorik jakinarazi gabe, honakoak aukeratzeko lehiaketatik kanpo geldituko da zuzenean: top ten, pintxorik onena edo zerbitzari edo profesionalik onena. | El incumplimiento de alguna de las bases del Concurso dará lugar a la descalificación del establecimiento hostelero. La organización del Concurso prestará una estricta y especial atención al hecho de que los pintxos participantes estén a disposición del público durante los días que dure el Concurso en el horario establecido. Aquellos establecimientos que cierren dentro del horario establecido para el concurso, que se queden sin pintxo, premeditadamente, y que no lo repongan en breve, o que comuniquen a sus clientes, que no van a tenerlo, por razones no justificadas, y que no se hayan comunicado a la organización, automáticamente quedarán fuera de las competiciones de top ten, mejor pintxo o mejor camarero/a profesional. |
| | |

**Amorebieta-Etxanoko Udala**
**Bizkaia**

## ZORNOTZAN JAN ALAI
## IZENA EMOTEKO ORRIA/ HOJA DE INSCRIPCIÓN

- Tabernaren izena / Nombre del establecimiento hostelero:

- Sukaldariaren edota pintxoa sortu duenaren izen-abizenak/ Nombre y apellidos del cocinero/a creador del pintxo:

- Tabernaren helbide osoa (harremanetarako eskuko telefono zenbakiarekin)/ Dirección completa del establecimiento hostelero (con teléfono móvil de contacto):

- Pintxoaren izena/Nombre del pintxo:

- Pintxoaren osagaiak/ Ingredientes del pintxo (2 lerro/ 2 líneas ):

- Pintxoa zelan aurkeztu/ Presentación del pintxo (2 lerro/ 2 líneas):

Behean sinatzen duenak "Zornotzan JAN ALAI 2017" pintxo lehiaketan parte hartzeko izena ematen du

1. Txapelketa arautzen duten oinarriak ezagutu, onartu eta sinatuz.
2. Sari banaketara etortzeko prestutasuna agertuz.
3. Bere errezeta eta pintxoaren argazkia komunikabideetan edo bestelakoetan (argitalpen edo etorkizunean egin daitekeen komunikazioa) azaltzeko baimena emanez.
4. Eskatutako agiriak sasoiz eta dagokion moduan igorriz.

---

El abajo firmante solicita su inscripción como participante al concurso de pintxos "Zornotzan JAN ALAI 2017":

1. Conociendo, aceptando y firmando las bases que regula el certamen.
2. Manifestando su disposición para acudir a la Entrega de Premios.
3. Autorizando a que se reproduzca su receta y foto en los medios de comunicación y en cualquier tipo de evento, publicación o comunicación posterior.
4. Remitiendo la documentación exigida, en tiempo y forma.

**Izen-abizenak / Nombre, apellidos:**

**Data/ Fecha:**